




ALDUDE Hargibel



Distantzia 11,56 km	Desnibela 690 m	Iraupena 5h00	Tipologia Itzulia, joan-etorriko zati batekin	Zedarriak PLR seinaleak (horiak)
-------------------------------	---------------------------	-------------------------	---	--

Ibilaldiaren abiapuntua Aldudeko elizako aparkalekuan dago.

GPS datuak: UTM : 627938 - 4772956 Lat/Long : 43.09854/-1.42794

Aldudeko herriaren jatorri etimologikoak - "Altueretarako bidea" - ederki erakusten du ibilbidearen nondik norakoa. Pagadien eta iratzalekuen artetik, ibilaldi honi xarma berezia ematen dioten Hargibel eta Harrikulunkako mendi gain arrokatsuetara iritsiko zara.



1. ZATIA > Berdaritzeko lepoa

UTM : 627938 - 4772956

Joan Herriko Etxearen eta elizaren arteko errepidetik. 200 m urrunago, joan eskuinera. Poliki ibili, errepide horretako igoera arras zuta baita bide bilakatzen den arte. Eskuineko lehen bihurgunean, bidetik jarraitu. Oihan mistotik ateratzean, iratzeleku bat dago, eta hortik Aldudeko herria ongi ikus daiteke. Hiru bihurgune pasatu ondoan, joan eskuinera, pagadi batean sartzeko. Pagadi eder honetan igoera ez da hain patartsua eta oso atsegina da. Lekuka, ahabiondoek lurra estaltzen dute. Oihanetik ateratzean, Berdaritzeko lepora iritsi.



2. ZATIA > Belaungo lepoa

UTM : 626997 - 4774450

Berdaritzeko lepotik, joan ezkerrean, bide belartsu batetik. Pagoen artean, joan ezkerrean dagoen lehen bidetik. Bidea laster zabaltzen da iratzeen artean. Pixka bat urrunago, joan ezkerrean, pagaditik urruntzeko. Hesi batek bazterkatzen duen bide batera iritsi. 50 m geroago, biratu eskuinera, beste bide belartsu bat hartzeko. Korrak baten ondoko patarrean, joan zuzen. Ondotik, tontor-lerroaren itzulia egiten duen eskuineko bideari jarraitu. Bazkaleku baten ondotik, lepo oihantsu baten heinean, joan eskuinera. Jaitsi Belaungo lepora. Harri-hormazko korrak bati esker ezagut daiteke.



2. ZATIA



3. ZATIA > Hargibel eta Harrikulunka

UTM : 625670 - 4773098

Igo eskuinera, oihanerantz. Igoeran, pagadi ederrak eta iratzelekuak aldizkatzen dira. 1 km urrunago, Eihartzako lepora iritsi. Ezkerretik datorren errepide baten bukaerari esker errazki ezagut daiteke. Lepo horretatik, joan-etorria egin daiteke Hargibeleko gailur arrokatsuen oinean dagoen Harrikulunka ikusteko. Horretarako, igo zuzen arrokatarantz. Pixka bat gorago, egon eskuinaldean, bidexkatik kanpo, betiere gailuraren azpiko arrokatarantz. Gailurretik 50 m-ra, Harrikulunka dago.

4. ZATIA > Errepide zatia

UTM : 624596 - 4772351

Ikuspegi ederraz gozatu eta Harrikulunka mugitzen entseatu ondoan, itzuli Eihartzako lepora, ibilbide beretik. Eihartzako lepoan, jaitsi eskuinera, errepidetik, lehen bihurgune gaiztoraino. Errepidetik atera eta ezkerreko bidea hartu. Belaungo lepoan, jarraitu eskuinerantz jaisten. Beherago, lehen pagoetan, joan eskuinera. 400 m urrunago, errepide batera iritsi. Joan ezkerrean, eta utzi eskuinerantz jaisten diren bi bideak. 1 km ibili ondoan, beste errepide perpendikular batera iritsi.

5. ZATIA > Elizara itzultzea

UTM : 627130 - 4772757

Errepide horretan, joan eskuinera. 30 m ibili ondoan, errepidetik atera eta ezkerreko bidexkatik jarraitu. 30 m geroago, bidexka utzi eta joan ezkerrean, guti ikusten den bidexka batetik jaisteko, zuzen, iratzeen artetik. Oihan burura iritsi. Hor, bidexka diskretu, hertsia eta itzaltsu bat hasten da. Beherago, beste bidexka bati lotzen zaio. Orduan, joan eskuinera. Oihanetik ateratzean, xeila bati ireki eta hetsi, eta joan ezkerrean. Bigarren xeila bati ireki eta hetsi. Eskuinera joan, elizara itzultzeko errepidetik.

INTERESGUNEAK

❖ Aldudeko eliza

Gaur egungo eraikina XIX. mendearen erdialdekoa da. Bi galeria-solairu ditu, eta barnealdean euskal elizen ohiko moldean antolatuta dago. Lehen, mezetan, gizonak goian jartzen ziren, galerietan, eta emazteak, berriz, behean, nabe bakarrean.
UTM : 627938 - 4772956

❖ Berdaritzeko lepoa

Bigarren Mundu Gerran, muga lerrotik hurbil, ihes egiteko sareak antolatu ziren. Alemaniarrek euskal mendietan zaintza zorrotza egin arren, Berdaritzeko pasabideak arrakasta handia ukan zuen eta hortik ihesaldi anitz antolatu ziren.
UTM : 626997 - 4774450

❖ Harrikulunka

Kondairaren arabera, jentil batek (euskal mitologiako izakiak) harri hori Hauza menditik bota omen zuen, Iruñeko katedrala suntsitzeko asmoz. Baina gaizki apuntatu zuenez, arroka Hargibelen oinean erori zen. 30 tona inguruko harri mokor hau mugitu daiteke. Ea bada, entsea zaitez!
UTM : 624596 - 4772351



ARRETAZ IBILTEKO LEKUAK

Artzain eremua: hesiak hetsi, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Abiapuntuan: komunak
UTM : 627938 - 4772956

Ibilbideen erabilbidea

ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoa.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatueta.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibilatzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurgiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurgiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetaren ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziatzeko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiatu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informatu zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota ondorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren gunetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 -
SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKEL BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeak aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu ematen arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak

- BAIGORRI

Herriko Etxeko plaza

+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI

Charles de Gaulle plaza

+33(0)5 59 37 03 57

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorrie jarraitu beharko zaizkie. ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↵	↵	↵	◀
Itzul eskuin	↶	↶	↶	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗